araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Ramiro Gonzalezek 752,2 milioi euroko aurrekontua aurkeztu du "gizarte-ongizatea blindatzeko" eta Arabarako inbertsio estrategikoak amaitzeko

Arabako Foru Aldundiak % 6 handitu du 2027rako aurrekontua, helburua gizarte-politikak, berrikuntza eta lurralde-kohesioa indartzea izanik

Foru-kontuek 66,6 milioi euro bideratzen dituzte enpresa-sarea indartzeko eta ekosistema industrial eta teknologiko lehiakorra sendotzeko

Biztanle bakoitzeko gizarte-inbertsioak gora egin du. "Araba baliabide gehien bideratzen dituzten Estatuko lurraldeen artean dago, 1.024 eurora iristen da pertsonako, % 9,4ko igoerarekin 2026an baino", nabarmendu du diputatu nagusiak

Gasteiz, 2026ko azaroaren 13a. Ramiro Gonzalez diputatu nagusiak eta Itziar Gonzalo Ogasun, Finantzak eta Aurrekontuetako diputatuak gaur goizean aurkeztu dute Arabako Foru Aldundiaren 2027rako aurrekontu-proiektua, 752,2 milioi eurokoa, aurreko ekitaldian baino % 6 gehiago.

"Zerbitzu publikoen kalitatea eta herritarren ongizatea blindatzeko kontuak dira. Pertsonen bizitzan diferentzia erreala ezar dezakegun arlo guztietan jarduten dugu, gastuak arintzeko eta ahaleginak hor kontzentratzeko" azpimarratu du Gonzalezek. Diputatu nagusiak gaineratu duenez, *"Arabak, aurrean duen etapa berrian,,bere indar ekonomikoa sendotu behar du lortutakoa babesteko".*

Etxebizitza gizartearen erronkarik garrantzitsuenetako bat dela ere adierazi du Gonzalezek. Hori sustatzeko eta indartzeko 6,2 milioi bideratuko dira, bi jarduera-ildotan: batetik, erosteko eta birgaitzeko laguntzak, eta, bestetik, abalen programa 36 urtetik beherako gazteek etxebizitza erosteko.

Produkzio-eraldaketa, lurralde-kohesioa eta iraunkortasuna dira aurrekontuaren hiru ardatz nagusiak. 66,6 milioi euro mobilizatu dira berrikuntza gidatzen duten sektoreak bultzatzeko, enpresa-ehuna indartzeko eta ekosistema industrial eta teknologiko lehiakorra sendotzeko, *"produktu eta soluzio teknologikoen hurrengo belaunaldia Araban egin dadin"*, azpimarratu du.

Bidean aurrera egiten duten proiektu estrategikoetarako partidak ere aurreikusten dira, hala nola EDA Ardoaren Bikaintasun Zentroa, 6,3 milioirekin hornitua; industria-lurzorua erostea Iparraldeko Industria Barrutian eta beste kokaleku batzuetan inbertsio berriak egiteko (5 milioi), tranbia Gasteizko Zabalgana auzoraino zabaltzea (3,7 milioi) edo Automobilgintzako Fabrikazio Aurreratuko Zentroa (1,2 milioi).

Ramiro Gonzalezek Arabako herritarren bizi-kalitatea nabarmendu du, *"bermatu egin behar duguna, eta horretarako 363 milioi euro bideratuko ditugu, hau da, aurrekontu propioaren % 48,2"*. Gizarte-politiken arloan, adineko pertsonentzako 100 plaza berri sortuko dira, eta familientzako

baliabideak, haurren babesa eta desgaitasuna indartuko dira. Ildo horretan, azpimarratu duenez, "*Araba biztanleko gizarte-inbertsio handiena duen Estatuko lurraldeen artean dago oraindik, 1.024 eurora iristen baita pertsonako, eta zifra horrek % 9,4ko igoera dakar 2026arekin alderatuta*".

Lurralde-kohesioari dagokionez, toki-erakundeen finantzaketa handitu egin da eta 394 milioira iritsi da.

Jarduera-ardatzak

Itziar Gonzalo Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako foru diputatuak azaldu ditu hurrengo ekitaldirako aurrekontu-proiektua lantzeko jarduera-ildo nagusiak.

Ongizatea eta lurralde-kohesioa dira proiektuaren lehen ardatzak. Gonzalok adierazi duenez, *"Gure Foru Gobernuak Araba inklusibo, berdintasunezko eta kohesionatu baterantz aurrera egiten jarraitzeko duen asmoa islatzen du, pertsonak ekintzaren erdigunean jarriz eta zainketen eremuan gizarte politika berritzaileak eta puntakoak bultzatuz"*. Horretarako, 353 milioi euro esleitu dira, 2026rako aurrekontuan jasotakoa baino % 11,1 gehiago. Kopuru horretatik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak 322,1 milioi izango ditu, eta foru diputatuaren hitzetan, "*gure gizarte-babeseko sistemaren funtsezko zutabe gisa finkatuz*".

Lan-ildo horretan 4,3 milioi euroko inbertsioak egingo dira. Horietatik 2,9 milioi Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen erabiltzaileen kudeaketa digitalizatzera bideratuko dira; 1,29 milioi Etxebidea egoitzara; eta 130.000 euro zahartzearen ikerketa-zentrora.

Aurrekontuak gazteriari, kirolari, kulturari eta euskarari zuzendutako politikak ere indartzen ditu. Gazteriaren Foru Erakundeak 7,8 milioi euro kudeatuko ditu, eta kirolak 1,4 milioi euro jasoko ditu, *"ohitura osasungarriak, integrazioa eta gizarte-kohesioa sustatzeko tresna gisa"*.

Era berean, 2,5 milioi euro gordeko dira kultura-ekintzako programa baterako, *"herritar guztiei kulturarako sarbidea bermatu eta aberasten digun ondare kolektiboa babesteko eta zabaltzeko*". Horri 2,4 milioi euro gehitu behar zaizkio gizarte-bizitzako esparru guztietan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko, eta ia milioi bat euro berdintasunerako.

5,5 milioi euroko inbertsioaren bidez ematen zaizkio baliabideak gizarte-kohesioari, *"Foru Administrazio hurbilagoa, irisgarriagoa eta gardenagoa eraikitzen jarraitzeko"*. Hala, gizarteratze- eta kulturartekotasun-politikak bultzatzeko 500.000 euro gordeko dira; 1,9 milioi euro enplegua eta etengabeko prestakuntza sustatzeko, bereziki kolektibo ahulenei arreta jarrita; eta 1,7 milioi euro garapenerako lankidetzarako, elkartasuna eta justizia globala indartzeko.

Foru arduradunak, gainera, aurrekontuak berrikuntzari eta lehiakortasunari ematen dien laguntza azpimarratu du, *"lurraldearen garapen ekonomikoari eusteko funtsezko palanka gisa"*. Kapitulu honetan ekoizpen-sarerako eta ekintzailetzarako laguntzak (8,2 milioi) eta deskarbonizaziorako laguntzak (2 milioi) jasotzen dira. Nabarmentzen da baita Foronda aireportua indartzeko aurreikusitako 1,6 milioi euroko kopurua.

Lehen sektoreari laguntzea da aurrekontuaren beste ardatz garrantzitsuetako bat, 17 milioi euro mobilizatzen baititu Arabako ekonomia eta landa-ingurunerako funtsezkoa den jarduera indartzeko. Partida handienak landa-garapenari dagozkio, 11,4 milioi eurorekin, nekazaritza-ustiategiak modernizatzeko jarduerak, eremu behartsuen konpentsazio-kalte-ordainak eta nekazaritza-

ingurumeneko laguntzak barne. Horrez gain, abeltzaintzarako baliabideak (2,5 milioi), mahastizaintzarako baliabideak (1,2 milioi) eta milioi bat euro inguru ureztatzearen arloko jardueretarako.

Aurrekontuak turismo-eredu lehiakor, iraunkor eta berritzaile baten aldeko apustua ere indartzen du, 1,9 milioi euroko inbertsioarekin, Araba kalitatezko erreferente gisa sendotzen jarraitzeko. Halaber, 400.000 euro gorde dira hurbileko merkataritza indartzeko eta artisau-sektorearen jarduera babesteko, horiek baitira tokiko nortasunaren eta ekonomiaren funtsezko elementuak.

Foru Administrazioaren digitalizazioak aurrera egiten du bere ezarpenari dagokionez, 4 milioi euroko inbertsioarekin, eta horri esker Zergak Kudeatzeko Sistema egokitu ahal izango da SAP plataformara. Jarduera estrategikoa hori bideratutako da zerbitzu eraginkorragoa ematera, prozedurak sinplifikatzera eta herritarrek Foru Ogasunarekin duten harremana hobetzera.

Hirugarren ardatza jasangarritasunari, ingurumenari eta mugikortasunari buruzkoa da, klima-aldaketaren aurkako borrokaren funtsezko elementu gisa, eta 125 milioi euro ditu horretarako.

Lurraldearen mugikortasuna eta bide-artikulazioa 66 milioi euro inguruko inbertsioarekin indartzen dira. Hornidura horri esker, garraio publikoa eta bidesarien hobari-politikak bultzatu ahal izango dira (12,6 milioi euro), eta tranbia Gasteizko Zabalgana auzoraino luzatu ahal izango da (3,7 milioi euro).

Bide-azpiegiturek 46,7 milioi euro izango dituzte, iaz baino % 30 gehiago, bai foru errepide-sarea zaintzeko eta mantentzeko, bai inbertsio berriak egiteko eta hobetzeko jarduketak egiteko. Horien artean, AP-68 autobidearen Arabako zatiaren kudeaketa nabarmentzen da, bere itzultzearen ondoren. Horretarako 3,7 milioi euro gordetzen dira trenbidearen mantenimendurako, eta milioi bat gehiago hobekuntza- eta indartze-jardueretarako.

Ingurumenari, natura-ingurunearen babesari eta klima-aldaketara egokitzeari lotutako jarduerek baliabideak izango dituzte hondakinak kudeatzeko (11,2 milioi euro), uraren ziklo integrala hobetzeko (9,7 milioi), naturguneak kontserbatzeko (4,9 milioi) eta ekintza klimatikoak egiteko (5,7 milioi).

Aurreikusitako ekimenen artean, nabarmentzekoak dira Arabako Berrerabilpenerako Prestakuntza Zentroa abian jartzea, karbonozko hustubide natural berriak sortzea eta espezie mehatxatuak babesteko eta espezie inbasoreak kontrolatzeko hainbat jarduera.